

Euskararen erabilera normalizatzeko diru laguntzak emateko oinarriak.

Azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera arauzkotzezkoak, bere 5. artikuluan Euskadiko Autonomia Erkidegoko herritar guztiek hizkuntzaren esparruan dituzten eskubide nagusiak xedatzen ditu, eta ondoren, bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren atalburuetan, eskubide horiek bizitza sozialaren esparru guztietara hedatzen ditu. Legeak, halaber, erakunde bakoitzak dituen eskumenen barruan herritarrenganako hizkuntza politika aintzat har dezaten agintzen die herri administrazioei, besteak beste bizitza sozialaren alor guztietan euskararen erabilera sustatuz.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 7.2 artikuluan xedatzen du udalei dagokiela beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz eta beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.

Horregatik, eta Udalaren diru laguntza emanez lortu nahi den interes publikoa eta Udalaren diru laguntza jarduerak bete behar dituzten printzipioak (hala nola publizitatea, gardentasuna, konkurrentzia, objetibotasuna, berdintasuna, diskriminazio eza, eragingarritasuna eta eraginkortasuna) betetzea bermatzeko, ordenantza hau egin da, parte hartzen duten udal organoen eta diru laguntzen onuradun izan litezkeen pertsonen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen marko juridiko orokorra jasotzeko. Eta behar den publizitatea emango zaio dokumentuari, inplikaturik dauden alde guztiek horren berri izan dezaten.

1.- Helburua.

Oinarri hauen helburua da Eskoriatzan euskararen erabilera normalizatzeko diru laguntzak emateko prozedura arautzea ondoren adierazten diren modalitateen arabera. Modalitate horiek arautzen dituzten oinarri zehatzak eranskin gisa doaz:

- 1. eranskina: euskara ikasteko diru laguntzak.
- 2. eranskina: hizkuntza errefortzuetarako diru laguntzak.

2.- Organo eskuduna.

Oinarri hauek onartzeko organo eskuduna Udalbatzarra da (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.e artikuluan aurreikusitakoaren arabera).



3.- Araudi aplikagarria.

Oinarri hauek eta diru laguntzak ematerakoan indarrean dauden gainerako arauak arautuko dituzte diru laguntza hauek eta baita onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa ere.

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetarako honako hauek aplikatuko dira:

- 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea.
- Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta lege horretako erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua.
- Diru laguntzei buruzko Eskoriatzako Udalaren plan estrategikoa (2020ko martxoaren 17ko GAO).

4.- Onuradunak.

Oinarri hauetan araututako diru laguntzak eskatu ahal izango dituzte laguntza ematea eragin duen jarduera egiten duten edo laguntza ematea legitimatzen duen egoeran dauden pertsona fisikoek, oinarri zehatzetako eranskinetan ezarri bezala.

Eskatzaileek oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetatik dagokionean ezarritako eskakizunak bete beharko dituzte, eta azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan diru laguntzak jasotzeko adierazitako debekurik ezingo dute izan.

5.- Diru laguntzak eskatzeko modua eta epea.

Eskaerak sinatutako eskaera-orri bidez egin beharko dira, eta modu presentzialean nahiz digitalean eskura dauden eskaera ereduari egokituta.

Eskaerak astelehenetik ostiralera, 9:00etik 14:30era aurkeztu ahal izango dira Udal Erregistro Orokorrean, edo asteko 7 egunez 24 orduz telematikoki Herritarren Atarian.

Eskaerak aurkezteko epea diru laguntzetarako deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egun baliodunean hasiko da.

Eskaerak aurkezteko epea urteko deialdian zehaztuko da.

Eskaera orriarekin batera, eskatzaileek ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dituzte:

1. Nortasun Agiri Nazionalaren (NAN)



2. Banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako agiria, ziurtatzeko bere izenean kontu korrante bat duela. Dokumentu hori laguntza lehen aldiz eskatzen denean edo kontuan aldaketaren bat gertatu denean bakarrik aurkeztu beharko da soilik. Gainerako kasuetan, nahikoa de kontuzenbakia eskabidearen inprimaki berean agertzea.
3. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko berariazko baimena emango du eskaera orrian bertan edo, hala egin ezean, hori egiaztatzeko agiria.
4. Beste erakunde edo organismo batzuei egindako diru laguntza eskaerak edo horiek dagoeneko emandakoak badira, zenbatekoa izan den adierazten duen zinpeko aitortpena. Eskaera orrian bertan egingo da adierazpen hau.
5. Azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan aipatzen diren diru laguntzak jasotzeko debekuetatik batean ere ez egotearen zinpeko adierazpena. Eskaera orrian bertan egingo da adierazpen hau.
6. Deialdi honetako laguntza lerro bakoitzerako, dagokion eranskinean zehaztutako bestelako dokumentazioa.

Eskaera aurkezteak eskatzaileak oinarri hauetan ezarritako baldintzak osorik onartzea dakar.

6.- Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria.

1. Eskabideak edo horrekin aurkeztu beharreko dokumentuek akatsik izanez gero edo osatugabeak badira, interesdunari, azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasota bezala, hamar eguneko epea emango zaio antzemandako akatsak konpontzeko. Eta ohartaraziko zaio epea igarota horrelakorik egin gabe, eskariari uko egin diola ulertuko dela, Lege horretako 42.1 artikuluan aurreikusitako moduan.
2. Aurkeztutako eskaera egoki ebaluatu eta erabaki ahal izateko beharrezkotzat jotzen duen behar beste dokumentu eta informazio osagarri eskatu ahal izango die Udalak eskatzaileei.

7.- Diru laguntzak emateko prozedura.

1. Diru laguntzak emateko prozedura norgehiagokakoa edo norgehiagokarik gabea izan daiteke, eta oinarri zehaztutako eranskinetan adieraziko da bata edo bestea izango den.



2. Diru laguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den alkate erabakiz onartutako deialdiaren bidez.

8.- Balorazio irizpideak.

Diru laguntza eskaerak ebaluatzeko irizpideak laguntza modalitate bakoitzerako, oinarri orokor hauen eranskinetako oinarri zehatzetan adierazitakoak izango dira.

9.- Finantzazioa.

1. Eman daitezkeen diru laguntzak deialdiko urteko udal aurrekontuen kargura finantzatuko dira. Deialdian zehaztuko dira diru laguntzak finantzatzeko aurrekontu kredituak.
2. Oinarri hauen helburu diren diru laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europako Batasuneko edozein administratibotik edo erakunde publiko edo pribatutik edo nazioarteko erakundeetatik jasotako diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin, betiere, laguntza edo diru laguntza horiek arautzen dituzten araudiek ezarritakoaren kaltetan gabe.
3. Oinarri hauetan araututako diru laguntzek ezin izango dute beraiek bakarrik edo beste administrazio publikoetako edo beste erakunde publiko edo pribatuetako diru laguntzekin batera erakunde onuradunak egin beharreko jardueraren kostua gainditu.
4. Diru laguntza emateko erabakia alda daiteke diru laguntza emateko kontuan izandako edozein baldintza aldatuz gero; eta, beti aldatuko da oinarri hauetan baimendutako kasuetatik kanpo beste diru laguntza batzuk lortuz gero.

10.- Diru laguntzen zenbatekoa.

Diru laguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera finkatuko da, betiere, dagoen aurrekontua eta diru laguntza lerro bakoitzerako oinarri orokor hauekin doazen oinarri zehatzetan zehaztutako balorazio eta kuantifikazio irizpideak kontuan hartuta.

11.- Prozedura agintzeko eta instruitzeko organo eskudunak.

1. Diru laguntzearako deialdia egitea Alkate-Udalburuari dagokio, eta horrek hartutako erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.



2. Diru laguntzak emateko prozedura instruitzea Euskara departamentuari dagokio, eta erabaki proposamena egiteko datuak zehazteko, horiek ezagutzeko eta egiaztatzeko egoki iritzitako behar besteko jarduketa egingo ditu ofizioz.
3. Instrukzio fasea hasteko, Euskara departamentuak diru laguntza eskaeren aurre ebaluazioa egingo du: eskatzaileek diru laguntzaren onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen dituztela eta aurkeztutako dokumentazioa osoa eta zuzena dela egiaztatzea.
4. Ebaluazioa egin ondoren euskara teknikariak txosten teknikoa eta ebazpen proposamena egingo du.
5. Alkate ebazpena.
6. Hartutako erabakiaren informazioa dagokion batzorde informatzailean emango da.

12.- Diru laguntza emateko erabakia.

1. Oinarri hauetan aurreikusitako diru laguntzak erabakitzeko organo eskuduna Alkatea da.
2. Orokorrean, dagokion erabakiak hartu eta horiek argitaratu edo jakinarazteko gehienezko epea sei hilabatekoa izango da. Epe hori eskaerak aurkezteko epea amaitzen den biharamunetik hasiko da kontatzen.

Edozein modutan ere, epea igaroz gero erabakia jakinarazi edo argitaratu gabe, eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela ulertu beharko da.

Erabakiak administrazio bidea agortzen du.

Prozeduraren erabakia interesdunei jakinaraziko zaie, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 58. artikuluan ezarritakoaren arabera; eta jakinarazpena aipatutako legeko 59. artikuluko xedapenetan ezarritako moduan egingo da. Hori guztiori, emandako diru laguntzak Eskoriatzako Udalaren webgunean argitaratzearen kaltetan gabe.

13.- Diru laguntzak ordaintzea.

Diru laguntzak eranskinetako oinarri zehatzetan aipatutako moduan ordainduko dira.

14.- Diru laguntzak zuritzea.



Oinarri hauek helburu dituzten diru laguntzak zurituko dira, lerro bakoitzerako eranskinetan jasotako espezialitateen arabera.

15.- Emandako diru laguntzak itzultzea.

1. Onuradunak oinarri orokor hauetan, oinarri zehatzetan eta aplikagarri den gainerako araudian ezarritako edozein eskakizun edo betebeharrak ez betetzeak diru laguntza jasotzeko eskubidea erabat edo partzialki galdutzat jotzeko aitorpena ekarriko du, eta baita diru laguntza osorik edo partzialki, dagozkion berandutze interesekin batera, itzultzeko betebeharra ere.
2. Ez betetze horiek mailakatzeko proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira, diruz lagundutako jarduera guztietatik egindakoaren eta jasotako diruaren arabera kalkulatu direnak.
3. Dirulaguntza eman zuen organoak izango du eskumena espedienteari hasiera emateko eta, hala badagokio, itzulketa eskatzeko erabakia hartzeko.
4. Prozedura ofizioz hasi ahal izango da, organo eskudunak edo interesdunak eskatuta.
5. Horretarako probidentzia hartuta, Udalak dirulaguntza itzultzeko prozedura hasi dela eta prozedura hori zergatik hasi den jakinaraziko dio onuradunari, eta entzunaldia emango dio interesdunari, 10 eguneko epean egoki iritzitako alegazioak egin ditzan eta egoki iritzitako dokumentuak edo justifikazioak aurkez ditzan.
6. Alegazioak jasota edo epea alegaziorik egin gabe igarota, alkateak erabaki arrazoitua emango du, errekurtsoen araubidea adierazita. Dirulaguntza itzultzeko prozedura erabakitzeko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da.
7. Erabakiak ez-betetzereen bat egon dela baiesten badu, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu dela deklaratu du, eta, hala badagokio, bidegabe jasotako zenbatekoak udal-diruzaintzari itzuli behar zaizkiola horren jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean.
8. Epe hori borondatezko epean ordaintzeko epetzat hartuko da.
9. Itzulketa ez bada aurreikusitako epean egiten, premiamendu-prozedura hasiko da, aplikatu beharreko lege-araudiari jarraikiz



10. Dirua bueltatu ezean, Eskoriatzako Udaletik 2 urtez beste edozein motako diru laguntza jasotzeko eskubidea galduko du onuradunak

16.- Oinarriak interpretatzea.

Oinarri hauek interpretatzerakoan, aplikatzerakoan edo horien ondorioetarako zalantzarik izanez gero, Alkateak erabakiko du Euskara, gazteria eta hezkuntza batzorde informatzaileak aurrez txostena eginda.

17.- Garapena eta exekuzioa.

Oinarri hauek exekutatu ahal izateko behar beste erabaki hartzeko ahalmena ematen zaio Alkate-Udalburuari.

18.- Indarrean jartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean izango dira indarrean.



1 ERANSKINA

EUSKARA IKASTEKO MATRIKULA GASTUAK ORDAINTZEKO DIRU

LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ZEHATZAK

1. Artikulua: HELBURUA.

Oinarri hauen helburua da Leintz udal euskaltegitik kanpo euskara ikasi duten eskoriatzarrei, euskara ikasteko gastuak ordaintzeko diru laguntza baldintzak arautzea.

2. artikulua: ERREGIMENA.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 22.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdi honetako laguntzak ebaluazio bakoiztu erregimenean emango dira, Eskoriatzako herritarren artean euskararen ezagutza eta erabilera sustatu gura duten laguntza hauek izaera berezia baitute.

Norgehiagoka prozedura batean ez dago aukerarik alderatutako baloraziorik egiteko aurkeztutako eskaeren artean, eta, aurrekontu kontsignazioarena ez bada, beraien artean ezin da beste harreman elementurik ezarri.

3. artikulua: DIRU LAGUNTZA MOTAK.

Bi diru laguntza mota daude:

A) Leintz Udal Euskaltegitik kanpoko euskaltegi baten 2019-2020 ikasturtean egindako ikastaroen matrikulatuak ordaintzeko diru laguntza. Halakoetan, matrikularen %50era arteko diru laguntza emango da.

B) 2020. urtean egindako ikastaro trinko edo barnetegietako matrikulak ordaintzeko diru laguntza. Halakoetan, matrikularen %50era arteko diru laguntza emango da.

4. artikulua: ONURADUNAK.

Diru laguntza hauek Eskoriatzan erroldatuta dauden pertsona fisikoek eskuratu ahal izango dituzte.

Diru laguntza honen helburua kontuan izanik eta 38/2003 Legeak, Diru Laguntzak ematea arautzen duenak, 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, araudi honetako laguntzak jaso ahal izango dituzte diru laguntza emango duen erakundean zinegotzi edo plantilako langile direnek.



Gainera, Eskoriatzako kirol edo aisialdi elkartean diharduten pertsonak, euren egitekoa erabakigarria denean ere eskuratu ahal izango dituzte diru laguntza hauek.

Ez zaie diru laguntzarik emango izaera publikoa duten entitateei, ezta HABEren euskara-mailak edo horien baliokideak gainditu dituzten herritarrei ere, azken horiek HABEren bertan eskura baitezakete diru laguntza.

5. artikulua: BALDINTZAK.

Oinarri orokorretan ezarritako baldintzez gain, artikulua honetan ezarritako baldintzak bete beharko dira diru laguntza jaso ahal izateko, hain zuzen ere, honako hauek:

- Eskoriatzan erroldatuta egotea.
- Eskolako asistentzia gutxienez %75ekoa izatea.
- Egindako ikastaroan gutxienez azpimaila 1 gainditu izana.

6. artikulua: AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Eskaera guztiak, oinarri orokorretako 5. artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkezteaz gainera, artikulua honetan adierazitako dokumentazioarekin aurkeztu beharko dira:

- Eskaera orria.
- Matrikula ordaindu izanaren agiria.
- Ikastaroan izandako asistentzia eta maila egiaztatze euskarriak edo barnetegiak egindako agiria.

7. artikulua. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEAK.

Eskaerak deialdian zehaztutako epe zehatzetan aurkeztu beharko dira.

8. artikulua: DIRU IZENDAPENA.

Udalak dagokion aurrekontu partida gaituko du diru laguntza hauek emateko, eta horren zuzkidura izango da Udalak emango duen gehienezko diru kopurua.

Deialdian aurrekontu zuzkidura zehaztuko da, ekitaldi bakoitzerako onartutako aurrekontuan berriaz sartuta egon beharko dena.

Aurrekontu zuzkidura ez bada nahikoa diru laguntza jasotzeko eskubidea duten eskaera guztiei aurre egiteko, dagokion diru gehikuntza egin ahal izango da udal aurrekontua exekutatzeko oinarrietan aurreikusitako kreditu aldaketan bidez.



Horretarako gaitutako kredituarekin ezingo balitz eskatutako diru laguntzen % 100ari aurre egin, diru laguntza bakoitzaren zenbatekoa proportzionalki egokituko zaio dagoen diru kontsignazioari.

9. artikulua: ORDAINKETA.

Diru laguntza ordainketa bakarrean emango da, gastua egin dela eta betebeharrak bete direla egiaztatutakoan eta dagokion organoak erabakia hartutakoan.

10. artikulua: BALDINTZA GEHIGARRIA.

Oinarri zehatz hauetan aurreikusi gabekoetarako, oinarri orokorretan ezarritakoa jarraituko da.



2 ERANSKINA

HIZKUNTZ ERREFORTZUAK JASOTZEKO "JENEROTAN EMANDAKO LAGUNTZA" MODALITATEAREN BIDEZ DIRU LAGUNTZAKO EMATEKO OINARRI ZEHATZAK.

Oinarriak.

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartzen duen erregelamenduak garatzen duen Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean diru laguntza kontzeptua honela jasotzen da 2.1. artikuluan: administrazio publikoetako edozeinek egiten duen diru-erabilera oro, pertsona publiko edo pribatuen alde, baldin eta honako baldintzak betetzen badituzte:

- a) Emakida onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe gauzatzea.
- b) Emakida helburu jakin bat betetzeari, proiektu bat gauzatzeari, jarduera bat mamitzeari, jokamolde berezi bat hartzeari -jada egindakoak edo garatzeko daudenak-, edo egoera bat gertatzeari lotuta egotea, betiere, onuradunak aurrez ezarritako gauzazko eta arauzko obligazioak betetzen baldin baditu.
- c) Finantzatutako proiektu, ekintza, jokamolde edo egoeraren helburua erabilera publiko edo interes sozialeko jarduera bat sustatzea edo helburu publiko bat sustatzea izatea.

Bere aldetik, aipatutako lege testuaren 5. xedapen gehigarriak "jenerotan emandako laguntzak" arautzen ditu, eta bigarren atalean esaten du Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra aplikatuko zaiela "ondasunak, eskubideak edo zerbitzuak emateko laguntzei, betiere, horiek hirugarren bati emateko helburu bakarrarekin eskuratzen baldin badira".

1. artikulua: HELBURUA.

Oinarri hauen helburua da adinari dagokion euskara nahikotasunik ez duten haurrek hizkuntza errefortzua jasotzeko laguntzak emateko baldintzak arautzea. Laguntzak "jenerotan emandako laguntza" modalitatean emango dira.

2. artikulua: ERREGIMENA.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 22.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, oinarri hauetako laguntzak ebaluazio bakoiztu erregimenean emango dira, Eskoriatzako umeen artean euskararen ezagutza eta erabilera sustatu gura duten laguntza hauek izaera berezia baitute.



Norgehiagoka prozedura batean ez dago aukerarik alderatutako baloraziorik egiteko aurkeztutako eskaeren artean, eta, aurrekontu kontsignazioarena ez bada, beraien artean ezin da beste harreman elementurik ezarri.

3. artikulua: DIRU LAGUNTZA MOTAK.

2020-2021 ikasturtean ludotekan eskainiko den hizkuntza errefortzua izango da diruz lagunduko dena. Udalak bere gain hartuko du onuradunen ludotekako matrikularen %100a, horretarako, berariaz kontratatuko du zerbitzua eskainiko duen enpresa.

4. artikulua: ONURADUNAK.

Laguntza hauek eskuratu ahal izango dituzte Eskoriatzan erroldatutako pertsona fisikoek, baldin eta beraien tutoretzapean edo guraso-ahalpean 3 eta 12 urte arteko adingabeak badituzte.

Adingabeokari dagokionez, ondorengo baldintzak bete beharko ditu hizkuntza errefortzua jaso ahal izateko:

- Eskoriatzan erroldatuta egotea.
- Eskoriatzako ikastetxeren batean matrikulatuta egotea haur hezkuntzan edo lehen hezkuntzan.
- Adinari dagokion euskara nahikotasunik ez izatea. Onuradunak identifikatzeko ardura ikastetxeek izango dute, eta Udalak ezarritako derrigorrezko baldintzez gain, beraienak ezartzeko eskumena izango dute. Kasu horretan, baldintzek Udalaren oniritzia izan beharko dute.
- Aurreko ikasturtean hizkuntza errefortzu zerbitzua jaso badu, aprobetxamendu maila nahikoa eduki izana.

5. artikulua: BALDINTZAK ETA BETEBEHARRAK.

Ezinbesteko baldintzak izango dira honako hauek:

- Ikastetxeak emandako ziurtagiria izatea, hizkuntz errefortzua jasotzeko beharra egiaztatuko duena.
- Hizkuntza errefortzuetara derrigorrez joatea. Horretarako onuradun bakoitzaren asistentzia/aprobetxamenduaren jarraipena egingo da, kontuan izango dena helburu bera duten hurrengo deialdietan diru laguntza onartzeko edo ukatzeko.



6. artikulua: AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Eskaera guztiak, oinarri orokorretako 5. artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkezteaz gainera, artikulua honetan adierazitako dokumentazioarekin aurkeztu beharko dira:

- Eskaera orria behar bezala beteta.
- Berariazko baimena ematen duen idazkia ikastetxeek eskatzailearen hizkuntz errefortzuaren beharraz txostena eman diezaioten Udalari.

Udala arduratuko da erroldatuta egotearen baldintza ofizioz egiaztatzeaz eta baita ikastetxeen haurraren nahikotasun-ezaren agiria eskatzeaz ere.

7. artikulua. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEAK.

Eskaerak deialdian zehaztutako epe zehatzetan aurkeztu beharko dira.

8. artikulua: DIRU IZENDAPENA.

Udalak dagokion aurrekontu partida gaituko du diru laguntza hauek emateko, eta horren zuzkidura izango da Udalak emango duen gehienezko diru kopurua.

Deialdian aurrekontu zuzkidura zehaztuko da, ekitaldi bakoitzerako onartutako aurrekontuan berariaz sartuta egon beharko dena.

Aurrekontu zuzkidura ez bada nahikoa diru laguntza jasotzeko eskubidea duten eskaera guztiei aurre egiteko, dagokion diru gehikuntza egin beharko da udal aurrekontua exekutatzeko oinarrietan aurreikusitako kreditu aldaketen bidez.

9. artikulua: ORDAINKETA.

Jenerotan jasotzeko laguntzak direnez, eta, alde batetik, horien tramitazioa azkartzeko helburuarekin, eta bestetik, aurrekontua izatearen menpe daudenez, espedientea egingo da hizkuntz errefortzua emango duen zerbitzua kontratatzeko.

Horrela, laguntzen onuradunek ez dute inolako diru kopururik jasoko.

Horrek esan nahi du laguntza emandakoan onuradunen esku jarriko dela aurrez baimendutako zerbitzua, eta Udalak ordainduko diola zuzenean enpresa esleipendunari dagokion faktura aurkeztu eta laguntzaren onuradunak zerbitzua benetan jaso duela ziurtatutakoan.



10. artikulua: BALDINTZA GEHIGARRIA.

Oinarri zehatz hauetan aurreikusi gabekoetarako, oinarri orokorretan ezarritakoa jarraituko da.



Bases para la concesión de subvenciones para la normalización del uso del euskera

La Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera establece en su artículo 5 los derechos fundamentales de que gozan todos los ciudadanos de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia lingüística, y, a continuación, en los capítulos segundo, tercero, cuarto y quinto hace extensivos dichos derechos a todos los ámbitos de la vida social. La ley, así mismo, dispone la obligación de todas las administraciones públicas a respetar, dentro de las competencias de cada institución, la política lingüística hacia los ciudadanos y promover el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social, entre otras cosas.

La Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, establece en su artículo 7.2 que corresponde a los ayuntamientos la competencia para promover el conocimiento y dinamizar el uso del euskera en su ámbito territorial, organizando directamente los servicios y actividades para ello y colaborando en la financiación de las actividades que otras personas o entidades lleven a cabo para la promoción y dinamización del euskera.

Por dicho motivo, y con el objetivo de garantizar el cumplimiento del interés público perseguido con la concesión de la subvención y de los principios que deben inspirar la actividad subvencional del Ayuntamiento, como son la publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad, no discriminación, eficacia y eficiencia, el pleno municipal formula las presentes Bases que tratan de recoger el marco jurídico general regulador de la actuación de los distintos órganos municipales intervinientes y de los derechos y obligaciones de las entidades beneficiarias de las subvenciones, dándole a dicho documento la publicidad necesaria que permita su conocimiento por todas las partes implicadas.

1.- Objeto.

Es objeto de las presentes bases la regulación del procedimiento para la concesión de subvenciones para la normalización del uso del euskera en el municipio de Eskoriatza, de conformidad con las modalidades que seguidamente se indican y cuyas bases reguladoras específicas de concesión se acompañan como anexos:

- Anexo 1: Subvenciones para el aprendizaje del euskera.
- Anexo 2: Subvenciones para refuerzos lingüísticos.

2.- Órgano competente.



El órgano competente para la aprobación de las presentes bases es el Pleno municipal (de conformidad con lo dispuesto en el artículo 22.2 e) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local).

3. - Normativa aplicable.

La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre el/la beneficiario/a y la entidad otorgante se regirá por las presentes bases y demás normativas vigentes en el momento de su concesión.

En todo lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación:

- Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.
- Ley 38/2003 General de Subvenciones y Real Decreto 887/2006, por el que se aprueba el Reglamento de dicha Ley.
- Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Eskoriatza (BOG de 17 de marzo de 2020)

4.- Beneficiarios.

Podrán acogerse a las subvenciones reguladas en estas bases las personas físicas y que hayan de realizar la actividad que fundamenta su otorgamiento o que se encuentren en la situación que legitima su concesión, según se establece en cada uno de los anexos de bases específicas.

Las personas solicitantes deberán cumplir los requisitos que se contemplan en el anexo correspondiente de entre los que acompañan a estas bases generales, y no incurrir en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones, señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la ley 38/2003 de 17 de noviembre.

5.- Forma y plazo de presentación de las solicitudes de subvención.

Las solicitudes deberán formularse mediante instancia firmada de manera presencial o digital y ajustada al modelo normalizado.

Las solicitudes se podrán presentar de 9:30 a 14:30 horas, de lunes a viernes, en el Registro General del Ayuntamiento o las 24 horas del día, 7 días a la semana, si se realiza de manera telemática en el Portal Ciudadano.

El plazo comenzará a partir del siguiente día hábil al de la publicación de la correspondiente convocatoria en el «Boletín Oficial de Gipuzkoa».

El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria anual.



Junto con el impreso normalizado de solicitud, los solicitantes deberán aportar los siguientes documentos:

1. Documento Nacional de Identidad (DNI).
2. Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro que certifique la titularidad de una cuenta corriente a su nombre. Este documento sólo será necesario presentarlo cuando se solicite una ayuda por primera vez o hayan variado las circunstancias de la cuenta. En el resto de los casos, será suficiente indicar el número de cuenta en el impreso de solicitud.
3. Autorización expresa en el propio impreso de solicitud para comprobar el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social o, en su defecto, documento acreditativo de dicho cumplimiento.
4. Declaración jurada que se realizará en el impreso de solicitud en la que se haga constar las solicitudes de subvención formuladas ante otras entidades u organismos, o aquellas subvenciones que ya le han sido otorgadas.
5. Declaración jurada que se realizará en el impreso de solicitud de no estar incurso en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones, señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la ley 38/2003 de 17 de noviembre.
6. Documentación específica detallada en el anexo de cada línea de subvención.

La presentación de la solicitud implica que la persona solicitante acepta íntegramente las condiciones establecidas en las presentes bases.

6.- Subsanación y documentación complementaria.

1. Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá al solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, para que, en el plazo de diez días, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 42.1 de ese mismo texto legal.
2. El Ayuntamiento podrá requerir a los solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesarias para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.



7.- Procedimiento de concesión.

1. El procedimiento de concesión de las subvenciones será bien el de concurrencia competitiva, bien el de concurrencia no competitiva, según se señala en los correspondientes anexos de bases específicas.
2. El procedimiento de concesión se iniciará de oficio, mediante convocatoria aprobada por Resolución de la Alcaldía publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

8.- Criterios de valoración.

Los criterios de valoración de las solicitudes de subvención serán los que se señalan en las bases específicas de los anexos que acompañan a estas bases generales para cada modalidad de subvención.

9.- Financiación.

1. Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos del Ayuntamiento del año de la convocatoria. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.
2. Las subvenciones objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes.
3. El importe de las subvenciones reguladas en estas bases en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente, o en concurrencia con subvenciones o ayudas de otras administraciones públicas, o de otros entes públicos o privados, supere el coste de la actividad a desarrollar por la entidad beneficiaria.
4. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso la obtención concurrente de otras aportaciones fuera de los casos permitidos en las presentes bases, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión.

10.- Cuantía de las subvenciones.

El importe de la subvención se fijará con arreglo a la documentación aportada por el/la solicitante, teniendo en cuenta las disponibilidades presupuestarias y los



criterios de valoración y cuantificación definidos para cada línea subvencionable en las bases específicas que acompañan a estas bases generales.

11.- Órganos competentes para la ordenación e instrucción del procedimiento.

1. La convocatoria de las ayudas corresponderá al Alcalde-Presidente mediante Resolución publicada en el Boletín Oficial del Gipuzkoa.
2. La instrucción del procedimiento de concesión de subvenciones corresponde al Departamento de Euskera, quien realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución.
3. La fase de instrucción se iniciará con la preevaluación que realice el Departamento de Euskera de la solicitud de subvención, que consistirá en la verificación del cumplimiento de las condiciones establecidas para adquirir la condición de beneficiaria de la subvención por parte de la persona solicitante y de que la documentación presentada se encuentra completa y es correcta.
4. Una vez realizada la valoración, informe técnico de la técnico de euskera con respecto a las solicitudes y propuesta de resolución.
5. Resolución de Alcaldía.
6. Informar a la comisión informativa correspondiente.

12.- Resolución de concesión.

1. El Alcalde será el órgano competente para resolver la concesión de las subvenciones contempladas en estas bases.
2. Con carácter general, el plazo máximo para dictar y publicar o notificar la resolución que corresponda será de seis meses. El plazo se computará desde el día siguiente a aquel en el que termina el plazo para presentar las solicitudes.

En todo caso, transcurrido el correspondiente plazo sin haberse notificado o publicado la resolución, se entenderán desestimada la solicitud por silencio administrativo.

La resolución pone fin a la vía administrativa.

La resolución del procedimiento se notificará a los interesados de conformidad con lo previsto en el artículo 58 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, y su práctica se ajustará a las disposiciones contenidas en el artículo 59 de la citada



ley. Todo ello sin perjuicio de la publicación de las subvenciones concedidas en la página web del Ayuntamiento de Eskoriatza.

13.- Pago de las subvenciones.

El pago de las subvenciones se producirá del modo señalado en las bases específicas de los anexos.

14.- Justificación de las subvenciones.

Las subvenciones objeto de las presentes bases se justificarán según las especialidades que se incluyen en los anexos para cada línea de ayudas.

15.- Reintegro de las subvenciones.

1. El incumplimiento por parte del beneficiario de cualquiera de los requisitos y obligaciones establecidos en las presentes bases generales, en las específicas y demás normativa aplicable, dará lugar a la declaración de la pérdida total o parcial del derecho a la percepción de la subvención y a la obligación de reintegrar ésta total o parcialmente junto con los intereses de demora correspondientes.
2. Para graduar los incumplimientos se utilizarán criterios de proporcionalidad, que serán estimados en función de las acciones realizadas respecto a la totalidad de las mismas y a los importes percibidos.
3. La incoación del expediente y, en su caso, la solicitud de reintegro, corresponderá al órgano que concedió la subvención.
4. El procedimiento podrá iniciarse de oficio a instancia del órgano competente o del interesado.
5. El Ayuntamiento, providencia al efecto, notificará al beneficiario la iniciación del procedimiento de reintegro y las causas que lo fundamentan, dando audiencia al interesado para que en el plazo de 10 días formule las alegaciones que estime oportunas y presente los documentos o justificaciones que estime convenientes.
6. Recibidas las alegaciones o transcurrido el plazo sin que se hubieran formulado, el Alcalde dictará acuerdo motivado en el que se expresará el



régimen de recursos. El plazo máximo para resolver el procedimiento de reintegro será de seis meses.

7. Si el acuerdo estimase la existencia de algún incumplimiento, declarará la pérdida del derecho a la subvención y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería municipal en el plazo de dos meses desde la notificación de la misma las cantidades indebidamente percibidas.
8. Dicho plazo tendrá la consideración de plazo de pago en periodo voluntario.
9. Si la devolución no se efectúa en el plazo previsto, se iniciará el procedimiento de apremio conforme a la normativa legal aplicable.
10. La falta de reintegro dará lugar a la pérdida del derecho del beneficiario a recibir cualquier otro tipo de subvención del Ayuntamiento de Eskoriatza en el plazo de 2 años.

16.- Interpretación de las Bases.

Cualquier duda que pudiera surgir en la interpretación, aplicación y efectos de las presentes Bases, será resuelta por la Alcaldía, previo informe, en su caso, de la Comisión Informativa de Euskera, juventud y educación.

17.- Desarrollo y ejecución.

Se faculta al Alcalde-presidente para dictar cuantos acuerdos sean necesarios para la ejecución de estas Bases.

18.- Entrada en vigor.

Estas bases entrarán en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.



ANEXO 1

BASES ESPECIFICAS DE CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA SUBVENCIONAR LOS GASTOS DE MATRICULACIÓN EN CURSOS DE EUSKERA

Artículo 1: OBJETO

Es objeto de estas Bases es regular las condiciones de la concesión de subvenciones a personas empadronadas en Eskoriatza para sufragar el gasto de la matrícula en cursos de euskera fuera de Leintz Udal Euskaltegia.

Artículo 2: RÉGIMEN

De conformidad con lo establecido en el artículo 22.2 de la Ley 38/2003, de 17 de Noviembre, General de Subvenciones, las ayudas a las que se refiere la presente convocatoria serán resueltas mediante el procedimiento de concesión en régimen de evaluación individualizada, dada la naturaleza excepcional de estas ayudas que pretende fomentar el conocimiento y el uso del euskera entre los vecinos de Eskoriatza.

No existe posibilidad de efectuar una valoración comparativa entre las solicitudes que se presenten en el marco de un procedimiento de concurrencia competitiva, no pudiendo establecerse otro elemento de relación entre sí que el de la consignación presupuestaria.

Artículo 3: TIPO DE SUBVENCIONES

Se distinguen dos tipos de ayudas económicas:

A) Cursos realizados en el periodo escolar 2019-2020 fuera de Leintz Udal Euskaltegia. Se concederá una subvención de hasta el 50% de la matrícula de la persona solicitante, siempre que cumpla los requisitos.

B) Cursos intensivos o en barnetegi realizados el año 2020. Se concederá una subvención de hasta el 50% de la matrícula de la persona solicitante, siempre que cumpla los requisitos.

Artículo 4: PERSONAS BENEFICIARIAS

Podrán acceder a estas subvenciones las personas físicas empadronadas en Eskoriatza.



Atendiendo la naturaleza de la subvención, y al amparo de la previsión contemplada en el art. 13.2 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones, podrán obtener la condición de beneficiarios de las subvenciones reguladas en las presentes bases, los corporativos y personal de plantilla del organismo convocante.

Además, la personas que participen activamente en asociaciones de deporte y tiempo libre de Eskoriatza, también podrán ser beneficiarios de la subvención, siempre que su labor sea significativa en dicho ámbito.

No se concederán subvenciones a las entidades de carácter público, ni a aquellas personas que hayan aprobado los exámenes de nivel de euskera de HABE o equivalentes, ya que éstas pueden acceder a la subvención otorgadas por HABE.

Artículo 5: REQUISITOS

Además de los requisitos fijados en las bases generales, para poder recibir la subvención se deberán cumplir los requisitos fijados en este artículo, y que son:

- Estar empadronado en Eskoriatza.
- Tener una asistencia mínima del 75% a las clases.
- Haber acreditado 1 subnivel

Artículo 6: DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

Todas las solicitudes deberán ir acompañadas de la documentación que se prevé en este artículo, sin perjuicio de la documentación prevista en el artículo 5º de las Bases Generales.

- Hoja de solicitud.
- Documento acreditativo de haber abonado la matrícula.
- Documento expedido por el euskaltegi o barnetegi que certifique la asistencia al curso y la aprobación de 1 subnivel.

Artículo 7: PLAZOS PARA PRESENTAR LA SOLICITUD.

Las solicitudes se presentarán en los plazos específicos que se determinen en la convocatoria.

Artículo 8: ASIGNACIÓN ECONÓMICA

Para la concesión de estas subvenciones el Ayuntamiento habilitará la correspondiente partida presupuestaria cuya dotación constituirá el límite máximo a conceder por parte del Ayuntamiento.



En la convocatoria se concretará la dotación presupuestaria, que deberá haber sido incluida de manera específica en los presupuestos del año en curso aprobados.

Si la dotación presupuestaria no alcanzara a cubrir el total de solicitudes con derecho a ayuda, se podrá proceder, a través de los mecanismos de modificación de créditos previstos en las bases de ejecución del Presupuesto Municipal, a su oportuna ampliación.

Para el caso de que con el crédito habilitado al efecto no pueda atenderse el 100% de las ayudas solicitadas, el importe de la subvención se adecuará proporcionalmente, según la consignación económica existente.

Artículo 9: PAGO

El abono de la subvención se realizará en un único pago, una vez se haya certificado la realización del gasto y el cumplimiento de las obligaciones, y así lo ordene el órgano correspondiente.

Artículo 10: CLAÚSULA ADICIONAL

En todo lo no previsto en las presentes bases específicas, se estará a lo dispuesto en las bases generales.



ANEXO 2

BASES ESPECÍFICAS DE CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA RECIBIR REFUERZOS LINGÜÍSTICOS MEDIANTE LA MODALIDAD DE AYUDAS EN ESPECIE

Fundamentación.

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, desarrollada por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el reglamento, conceptúa en su artículo 2.1. la subvención como toda disposición dineraria realizada por cualquiera de las Administraciones Públicas a favor de personas públicas o privadas, y que cumplan los siguientes requisitos:

- a) Que la entrega se realice sin contraprestación directa de los beneficiarios.
- b) Que la entrega esté sujeta al cumplimiento de un determinado objetivo, la ejecución de un proyecto, la realización de una actividad, la adopción de un comportamiento singular, ya realizados o por desarrollar, o la concurrencia de una situación, debiendo el beneficiario cumplir las obligaciones materiales y formales que se hubieran establecido.
- c) Que el proyecto, acción, conducta o situación financiada tenga por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública, interés social o de promoción de una finalidad pública.

Por su parte, la D.A. 5º del precitado texto legal regula las "AYUDAS EN ESPECIE", disponiendo en su apartado segundo que se aplicará la Ley General de Subvenciones a las "ayudas que consistan en la entrega de bienes, derechos o servicios cuya adquisición se realice con la finalidad exclusiva de entregarlos a un tercero".

Artículo 1: OBJETO.

Es objeto de estas bases el regular las condiciones de la concesión de ayudas consistentes en la prestación de refuerzos lingüísticos a los niños y niñas que no tengan un nivel de suficiencia de euskera correspondiente a su edad. Las ayudas se darán mediante la modalidad de "ayuda en especie".



Artículo 2: RÉGIMEN

De conformidad con lo establecido en el artículo 22.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, las ayudas a las que se refieren las presentes bases serán resueltas mediante el procedimiento de concesión en régimen de evaluación individualizada, dada la naturaleza excepcional de estas ayudas que pretende fomentar el conocimiento y el uso del euskera entre los niños y niñas de Eskoriatza.

No existe posibilidad de efectuar una valoración comparativa entre las solicitudes que se presenten en el marco de un procedimiento de concurrencia competitiva, no pudiendo establecerse otro elemento de relación entre sí que el de la consignación presupuestaria.

Artículo 3: TIPO DE SUBVENCIONES

Se subvencionará el refuerzo lingüístico que se ofrecerá en la ludoteca en el curso 2020-2021. El Ayuntamiento se hará cargo del 100% de la matrícula de los beneficiarios, para lo que contratará expresamente una empresa que ofrezca ese servicio.

Artículo 4: PERSONAS BENEFICIARIAS

Podrán acceder a estas ayudas las personas físicas empadronadas en Eskoriatza y que tengan bajo su tutela o patria potestad a menores de entre 3 y 12 años, siempre y cuando los niños y niñas también estén empadronados en Eskoriatza.

En cuanto al menor, deberán concurrir las siguientes circunstancias, para acceder al refuerzo lingüístico:

- Estar empadronado en Eskoriatza.
- Estar matriculado en alguno de los centros escolares de Eskoriatza en primaria o preescolar.
- No tener el nivel de suficiencia lingüística correspondiente a la edad. Este extremo será identificado por cada centro escolar, que además de los requisitos exigidos por el ayuntamiento, podrá tener criterios de selección propios, que deberán contar con el visto bueno del ayuntamiento.
- En caso de haber sido en el curso anterior beneficiario del servicio de refuerzo lingüístico haber tenido un nivel de aprovechamiento suficiente.



Artículo 5: REQUISITOS Y OBLIGACIONES

Para el refuerzo lingüístico de cualquiera de las dos modalidades serán requisitos imprescindibles:

- Estar en posesión del certificado otorgado por los centros escolares en el que se certifique la necesidad de recibir refuerzo lingüístico.
- La obligación de asistir a los refuerzos lingüísticos. Para ello se hará un seguimiento de la asistencia/aprovechamiento de cada beneficiario, que será tenida en cuenta para el otorgamiento o no de la subvención que pueda convocarse en posteriores ocasiones, con el mismo objetivo.

Artículo 6: DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR.

Todas las solicitudes deberán ir acompañadas de la documentación que se prevé en este artículo, sin perjuicio de la documentación prevista en el artículo 5º de las Bases Generales.

- Hoja de solicitud.
- Autorización expresa para que los centros escolares faciliten al ayuntamiento informe sobre la necesidad de refuerzo lingüístico del solicitante.

El Ayuntamiento, de oficio, será el encargado de comprobar el requisito del empadronamiento y de solicitar al centro escolar que certifique de necesidad de refuerzo lingüístico.

Artículo 7: PLAZOS PARA PRESENTAR LA SOLICITUD

Las solicitudes se presentarán en los plazos específicos que se determinen en la convocatoria.

Artículo 8: ASIGNACIÓN ECONÓMICA

Para la concesión de estas subvenciones el Ayuntamiento habilitará la correspondiente partida presupuestaria cuya dotación constituirá el límite máximo a conceder por parte del Ayuntamiento.

En la convocatoria se concretará la dotación presupuestaria, que deberá haber sido incluida de manera específica en los presupuestos del año en curso aprobados.



Si la dotación presupuestaria no alcanzara a cubrir el total de solicitudes con derecho a ayuda, se podrá proceder, a través de los mecanismos de modificación de créditos previstos en las bases de ejecución del Presupuesto Municipal, a su oportuna ampliación.

Artículo 9: PAGO.

Por tratarse de ayudas en especie, y con el objetivo, de un lado, de agilizar la tramitación de las mismas; y de otra, por estar sujeta a la disponibilidad presupuestaria, se instruirá expediente para la contratación del servicio a través del cual se prestará el refuerzo lingüístico.

De esta forma los beneficiarios de las ayudas no percibirán cantidad económica alguna.

Esto implica que una vez sea concedida la ayuda se pondrá a disposición de los beneficiarios el servicio previamente autorizado y siendo el ayuntamiento quien efectuará directamente el pago a la empresa adjudicataria contra la presentación de la correspondiente factura y una vez comprobada la efectiva prestación del servicio al beneficiario de la ayuda.

Artículo 10: CLAÚSULA ADICIONAL

En todo lo no previsto en las presentes bases específicas, se estará a lo dispuesto en las bases generales.